



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2025eko apirilaren 16a

51. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- 11-25/MOC-00061. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita lan-ikuskatzaitzaren arloko eskumenak eskualdatzea eska diezaion Espainiako estatuko Gobernuari, lan-istripuen kopurua murrizteko lan egiteko. Domingo González Martínez jaunak aurkeztu du (3. or.).
- 11-25/MOC-00062. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita produktu optikoak eta aho-hortzen osasuneko zerbitzuak sar ditzan Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren zerbitzuen zorroan. Leticia San Martín Rodríguez andreak aurkeztu du (4. or.).
- 11-25/MOC-00063. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroako Unibertsitate Publikoko ikasketen prezioak doitu ditzan. Cristina López Mañero andreak aurkeztu du (6. or.).
- 11-25/MOC-00034. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita lidergo publiko eta ezbairik gabea har dezan bere gain, Adimen Artifizialaren ondorioz erkidegoan gertatu beharreko eraldatze sozial eta ekonomikoari dagokionez. Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Batzordeak onetsi du (7. or.).
- 11-25/MOC-00054. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroako ijito-populazioaren garapenerako estrategia berri bat taxutu dezan 2025ean. Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Batzordeak onetsi du (7. or.).
- 11-25/MOC-00006. Mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua eta Nafarroako Gobernua premiatzen baitira babes dezaten EBk ingurumenaren arloko taldeei emandako dirulaguntza-kontratuak argitu eta ikertzea. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordeak ezetsi du (8. or.).

F S A I L A:

Galderak:

- 11-25/POR-00162. Galdera, 10 urte baino gehiagoko ibilgailuak txatar bihurtzeko iragarri diren pizgarrien baldintzei buruzkoa. Oihan Mendo Goñi jaunak egin du (9. or.).
- 11-25/PES-00165. Galdera, Nafarroarako osasun-arreta jarraitu eta larrialdikoari buruzko funtzionamendu planari buruzkoa. Domingo González Martínez jaunak egin du (10. or.).

- 11-25/PES-00166. Galdera, NASTATEk NUPekin lankidetzan egin duen Datu demografikoei eta horiek hezkuntza-sisteman eta ratioetan duten eraginari buruzko azterlanari buruzkoa. Pedro José González Felipe jaunak egin du (11. or.).
- 11-25/PES-00167. Galdera, Transporte Sanitario de Navarra Bidean SL sozietate publikoaren bidez osasun arloko garraio publikoa abian jartzeari buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (11. or.).
- 11-25/PES-00168. Galdera, Tuterako Reina Sofia ospitalean Minaren Unitatearen jarduera berreskuratzeari buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (12. or.).
- 11-25/PES-00169. Galdera, unibertsitate-graduetako eta masterretako ikasketetako kredituen kostuari buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (12. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-25/MOC-00061. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia- tzen baita lan-ikuskatzaitzaren arloko eskumenak eskualdatzea eska diezaion Espainiako estatuko Gobernuari, lan-istripuen kopurua murrizteko lan egiteko

DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko apirilaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita lan-ikuskatzaitzaren arloko eskumenak eskualdatzea eska diezaion Espainiako estatuko Gobernuari, lan-istripuen kopurua murrizteko lan egiteko.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2025eko apirilaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Txomin González Martínezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Lan-ikuskatzaitzaren eta enplegu-politika pasiboen eskualdatzeak erraztu eginen luke lan merkatua Nafarroako Foru Komunitateko ezaugarri sozioekonomikoetara egokitzea eta lagungarria izanen litzateke Nafarroako langileak babesteko, laneko istripuak murriztuz.

Zenbait hamarkada igaro dira Foru Hobekuntza onetsi zenetik eta gaur egun lan-ikuskatzaitzaren eskumena eduki gabe jarraitzen dugu. Aldiz, esku-

men hori beste erkidego batzuei –Euskadi eta Katalunia– eskualdatu zaie. Enplegu-politika pasiboen eskumenak ere ez dira eskualdatu, eta horrek eragozten du enplegu-politika publiko propioa, integrala eta eraginkorra garatu ahal izatea.

Nafarroak tresna berriak behar ditu enpleguaren erronkei aurre egiteko, are gehiago egungoa bezalako aldaketa disruptiboen agertoki batean. Bidegurutze batean gaude, eskakizun berriek eraginda, digitalizazioaren zabalpena edo klima-aldaketara moldatzeko zein potentzia handiek mundumerkataritzan gauzatutako aldaketei erantzuteko eskakizun berriak direla-eta. Horrenbestez, lehen-tasunezkoa da enplegu-politika publiko sendo eta eraginkorra, gure errealitatera egokitua, gauzatu ahal izatea.

Hori dela eta, honako erabaki proposamen hauek aurkezten ditugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premia-tzen du lan-ikuskatzaitzaren arloko eskumenak eskualdatzea eska diezaion Espainiako estatuko Gobernuari, lan-istripuen kopurua murrizteko lan egiteko.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premia-tzen du Estatuko Gobernua premia-dezan enplegu-politika pasiboak eskualda ditzan eta enplegu-politika propioa eta enplegu-politikako zerbitzua kongruentzia eta koherentzia handiagoz ematea ahalbidetu dezan, Nafarroako gizartearen arazo eta erronkei modu egokian erantzute aldera. Nafarroako Foru Komunitateak jada betetzen ditu lan-bitartekaritzari eta enplegu-politika “aktiboak” kudeaketari dagozkien eginkizunak, eta enplegu-politika pasiboen eskualdatzeak Nafarroako lan merkatuari konponbideak ematea erraztuko luke.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premia-tzen du lehenbailehen egin ditzan

enplegu-politika pasiboen eskualdatzea gauzatu ahal izateko beharrezkoak diren jarduketak, eta sei hilabeteko epean eginiko zuzemenei eta transferentzia eskuratzeko aurreikusitako epeei buruzko informazioa aurkez diezaion Parlamentuari.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du lan harremanen eta gizarte babesaren esparru propio baten alde urratsak egi-

teko beharra adieraz dezan, bizi baldintza hobek eta garapen ekonomiko justu eta jasangarria ahalbidetuko duten langileen prestakuntza eta babesa areagotzeko xedez.

Iruñean, 2025eko apirilaren 7an

Foru parlamentaria: Txomin González Martínez

11-25/MOC-00062. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernu premiatzen baita produktu optikoak eta aho-hortzen osasuneko zerbitzuak sar ditzan Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren zerbitzuen zorroan

LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko apirilaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernu premiatzen baita produktu optikoak eta aho-hortzen osasuneko zerbitzuak sar ditzan Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren zerbitzuen zorroan.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2025eko apirilaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Zioen azalpena

Osasuna ongizate integral gisa ulertu behar da, eta horrek esan nahi du gaixotasunik ez izatea ez ezik, ongizate fisikoa, mentala eta soziala ere hartzen dituela. Horrekin lotuta, ikusmenaren osa-

una eta aho-hortzetako osasuna osasun globalaren kontzeptuaren zati dira, zalantzarik gabe. Bi alor horiek zuzeneko eragina dute pertsonen bizi kalitatean, bai eta haien hezkuntza- eta lan-errendimenduan, autonomia funtzionalean, gizarteratzean eta gogo-aldartean ere.

Ikusmenaren osasunari dagokionez, pertsona askok dituzte konpondu gabeko ikusmen arazoak, eta horrek zuzeneko ondorioak ditu zenbait alderdi garrantzitsuetan: ikasteko gaitasuna haurtzaroen, segurtasuna gidatzerakoan edo adineko pertsonen erorketei aurrea hartzea. Osasun Inkesta Nazionalaren arabera, populazioaren % 60k baino gehiagok behar du zuzenketa optikoa, eta horietatik askok ez dituzte betaurrekoak edo ukipen-lenteak erabiltzen arrazoi ekonomikoak tarteko. Horregatik, osasun sistema publikoko zerbitzuen zorroan betaurreko graduatuen eta ukipen-lenteen gisako produktu optikoak sartzea, klinikoki agindutakoak badira, lagungarria izanen litzateke Nafarroako herritar askoren bizi kalitatea egiazki hobetzeko.

Era berean, aho-hortzetako osasunak zuzeneko harremana du gaixotasun sistemiko askorekin, hala nola diabetesa, gaixotasun kardiobaskularrak edota arnas aparatuko infekzioak. Arestian aipaturiko Inkesta Nazionalak agerian uzten du helduen % 30 inguruk onartzen duela hortzen bat galdu duela eta % 10ak baino gehiagok dio hortzetako mina izan duela berriki. Osasun zerbitzu publikoak herritar guztiei –eta, bereziki, zaurgarrienei, bermatu behar-ko lieke odontologia prebentibo eta errehabilitatiboko oinarritzko zerbitzuetarako sarbidea.

Baina, afekzio horiek osasunean eta bizi kalitatean eragin handia badute ere, prestazio horien

zati handi bat osasun sistema publikotik kanpo geratzen da. Horrek desberdinkeria eragiten du zerbitzuak eskuratzeko garaian, batez ere baliabide gutxien dituzten pertsoneri, bazterketa arriskuan dauden hurrei eta adineko pertsoneri eragiten diena.

Nafarroako Foru Komunitateak, Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legean xedatutakoari jarraikiz eta osasun arloan duen autogobernu ahalmenaren esparruan, baditu eskumenak osasun zerbitzuen zorro osagarri bat zehazteko, Osasun Sistema Nazionalaren zorro komunaren gehigarria izanen dena. Izan ere, Nafarroak gauzatu izan du ahalmen hori osasun zerbitzuen zorroari beste prestazio batzuk gehitzeko.

Nafarroaren zorro osagarriari zerbitzu horiek gehitzea neurri eraginkorra litzateke osasun arloko ekitate falta murrizteko eta bat eginen luke osasun publikoaren ikuspegi integral, prebentibo eta ekitatezko batekin.

Hala, Unión del Pueblo Navarro taldeak, osasun publikoaren ikuspegi osoago, ekitatezkoago

eta eraginkorrago horrekin bat etorritik, uste du egokia dela Nafarroako osasun sistema publikoak aurrerapausoak ematea ikusmenaren osasuna eta aho-hortzetako osasuna Foru Komunitateko osasun zerbitzuen zorro osagarrian sartze aldera.

Hori dela eta, erabaki proposamen hau aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Gobernua premiatzea beharrezkoak diren izapideak has ditzan betaurreko graduatuen eta ukipen-lenteen gisako produktu optikoak, klinikoki agindutakoak badira, Foru Komunitateko osasun zerbitzuen zorro osagarrian sartzeko.

2. Nafarroako Gobernua premiatzea aho-hortzetako osasun zerbitzuak pixkanaka sar ditzan zorro osagarrian, prebentziozko jarduketetatik hasita (aldizkako errebisioak, garbiketak, pitzadurak zigilatzea eta abar) eta gradualki zabal ditzan oinarrizko tratamendu errestitatiboak ere herritar guztientzat.

Iruñean, 2025eko apirilaren 7an

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

11-25/MOC-00063. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita Nafarroako Unibertsitate Publikoko ikasketen prezioak doitu ditzan

CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko apirilaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroako Unibertsitate Publikoko ikasketen prezioak doitu ditzan.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Unibertsitate, Berrikuntza eta Eraldaketa Digitaleko Batzordean izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2025eko apirilaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Batzordean eztabaidatzeko:

Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroako Unibertsitate Publikoko ikasketen prezioak doitu ditzan.

Zioen azalpena

Nafarroako Unibertsitate Publikoan ikasten duten ikasleek, batez beste, Espainia osoko preziorik altuena ordaintzen dute graduako titulazioetan eta gaikuntza ematen duten masterretan edo lanbide arautu bati lotutakoetan prestakuntza jasotzeagatik.

Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitate Ministerioaren datuen arabera, 2024-25 ikasturtean, lehen matrikulan, graduako titulazioen kredituaren batez besteko prezioa 19,29 eurokoa izan da Nafarroan. Beste muturrean Galiziako unibertsitateak daude, 11,95 euroko batez besteko kostuarekin. Batez besteko nazionala 15,37 eurokoa

da. Kontuan izan behar da, gainera, Espainia osoan kredituaren batez besteko prezioa jaitsi egin dela, pixka bat baino ez bada ere, 2023-2024 ikasturtetik 2024-2025 ikasturtera, baina Nafarroan mantendu egin da.

Lehen, bigarren eta hirugarren matrikulan, graduako titulazioen batez besteko prezioari dagokionez, lehen matrikularen eta hirugarrenaren arteko portzentajezko alderik handiena ere Nafarroan gertatzen da, hirugarren matrikularen prezioa lehen matrikularena baino 4,6 aldiz handiagoa baita.

Era berean, Nafarroa da, lehen matrikulan, Espainiako erkidego garestiena gaikuntza ematen duten masterren titulazioetan edo araututako lanbide bati lotutakoetan.

Egoera titulazio batetik bestera aldatzen bada ere, ez da onargarria nafarrek jasan behar izatea Foru Gobernuak Espainiako preziorik altuenak jartzea Nafarroako Unibertsitate Publikoan ikasi nahi dutenei. Are gehiago, hain zerga handiak ordaintzen ari garenean.

Egoera hori bereziki garestia da Iruñean bizi ez diren ikasle nafarrentzat; izan ere, kredituaren prezioari garraioa eta/edo ostatua gehitu behar zaizkio, eta, horren ondorioz, ikasle potentzialen zati bat Nafarroatik kanpoko beste unibertsitate batzuetan matrikulatzen da, eta horrek talentua eta giza kapitala galtzea dakar.

Era berean, prezio altuak oztopo badira beste erkidego batzuetako ikasleak NUPen matrikula daitezen.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki-proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Gobernua premiatzen da heldu den ikasturtean Nafarroako Unibertsitate Publiko-ko ikasketen prezioak doitu ditzan Espainiako gainerako unibertsitate publikoen batez besteko prezioa gainditzen duten graduatan eta gaikuntza ematen duten masterretan, harik eta batez besteko prezio horietara hurbildu arte eta, gutxienez ere, egungo aldearen % 50.

Iruñean, 2025eko apirilaren 10ean

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

11-25/MOC-00034. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita lidergo publiko eta ezbairik gabea har dezan bere gain, Adimen Artifizialaren ondorioz erkidegoan gertatu beharreko eraldatze sozial eta ekonomikoari dagokionez

INDUSTRIAKO ETA ENPRESEN TRANTSIZIO EKOLOGIKO ETA DIGITALERAKO BATZORDEAK ONETSI DU

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Batzordeak 2025eko apirilaren 9an onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita lidergo publiko eta ezbairik gabea har dezan bere gain, Adimen Artifizialaren ondorioz erkidegoan gertatu beharreko eraldatze sozial eta ekonomikoari dagokionez. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

- Lidergo publiko eta ezbairik gabea har dezan bere gain, Adimen Artifizialaren ondorioz erkide-

goan gertatu beharreko eraldatze sozial eta ekonomikoari dagokionez, teknologia honek dakarren energia- eta ur-kontsumoa kontuan hartuta eta planifikatuta.

- Espezializazio Adimendunaren Estrategiaren baitan atal berezi bat egon dadin adimen artifizialerako eta horren aplikazioetarako.

- Berriazko mahai bat eratu dezan arloko eragileekin, Adimen Artifizialetik heldu den eraldatzearen gobernantza parte-hartzailea eta demokratikoa ahalbidetzeko, bai eta Nafarroak haren balio-katean izan dezakeen parte-hartzea ere”.

Iruñean, 2025eko apirilaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-25/MOC-00054. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroako ijito-populazioaren garapenerako estrategia berri bat taxutu dezan 2025ean

ESKUBIDE SOZIALETAKO, EKONOMIA SOZIALEKO ETA ENPLEGUKO BATZORDEAK ONETSI DU

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Batzordeak 2025eko apirilaren 8an onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroako ijito-populazioaren garapenerako estrategia berri bat taxutu dezan 2025ean. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. 2025ean beste estrategia bat taxutu dezan Nafarroako ijitoen garapenerako, eta ijitoen gizarte zibilak horretan parte hartuko du.

2. 2025an Ijitoen Herriaren Nafarroako Kontseilua sor dezan, zeinetan parte hartuko baitute Foru Administrazioako ordezkariak, toki entitateetakoek, kultuen arteko ikuspegitik ijitoekin lan egiten duten gizarte-entitateetakoek eta ijitoen elkarteetakoek (emakumeen eta gazteen ordezkariak parekidearekin, ahal den neurrian). Kontseilu horrek kontsulta-izaera izanen du ijitoen komunitatearekin loturik Nafarroan egiten diren politiken arloan eta estrategia hau bultzatzeaz eta horren jarraipena egiteaz arduratuko da.

Iruñean, 2025eko apirilaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-25/MOC-00006. Mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua eta Nafarroako Gobernua premiatzen baitira babes dezaten EBk ingurumenaren arloko taldeei emandako dirulaguntza-kontratuak argitu eta ikertzea

LANDA GARAPENEN ETA INGURUMENEN BATZORDEAK EZETSI DU

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordeak, 2025eko apirilaren 9an egindako bilkuran, ezetsi egin du Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua eta Nafarroako Gobernua premiatzen baitira babes dezaten EBk ingurumenaren arloko taldeei emandako dirulaguntza-kontratuak argitu eta ikertzea. Mozioa 2025eko otsailaren 14ko 16. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko apirilaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

11-25/POR-00162. Galdera, 10 urte baino gehiagoko ibilgailuak txatar bihurtzeko iragarri diren pizgarrien baldintzei buruzkoa

OIHAN MENDO GOÑI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko apirilaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Oihan Mendo Goñi jaunak egindako galdera, 10 urte baino gehiagoko ibilgailuak txatar bihurtzeko iragarri diren pizgarrien baldintzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko apirilaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Oihan Mendo Goñik, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Ecomovers azokan, Energiaren, I+G+b Enpresen eta Ekintzaitzaren zuzendari nagusiak 1.000 €-ko pizgarri berri bat iragarri zuen 10 urtetik gorako ibilgailuak txatar bihurtzeko, 300.000 €-ko aurrekontuarekin, beste 300.000 €-ra handitu daitekeena.

Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuak zer epe eta baldintzatan eman nahi du 10 urtetik gorako ibilgailuak txatar bihurtzeko pizgarri berri hori?

Iruñean, 2025eko apirilaren 9an

Foru parlamentaria: Oihan Mendo Goñi

11-25/PES-00165. Galdera, Nafarroarako osasun-arreta jarraitu eta larrialdikoari buruzko funtzionamendu planari buruzkoa

DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko apirilaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak egindako galdera, Nafarroarako osasun-arreta jarraitu eta larrialdikoari buruzko funtzionamendu planari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko apirilaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Txomin González Martínezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun ditzan.

EH Bildu talde parlamentarioak 11-24/MOC-00118 erregistro-zenbakiarekin aurkeztutako mozioan jasotako epeak igaro dira. Mozio hori 2024ko urriaren 17ko Osoko Bilkuran eztabaidatu zen, eta honako proposamen hau onetsi zen:

«1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua eta Osasun Departamentua premiatzen ditu 2025eko lehen hiruhilekoan osasun-arreta jarraitu eta larrialdikoari buruzko funtzionamendu plan bat aurkez dezan Nafarroarako eta, aurkeztu ezean, Erriberriko Osasun Eskualde Oinarrizkoaren Etengabeko Arretarako Gunea berriz ere ezar dezan».

Horri buruz, parlamentari honek idatzizko galdera hauek egiten ditu:

– Osasun Departamentuak eta/edo Osasuneko kontseilariak ba al dute osasun-arreta jarraitu eta larrialdikoari buruzko funtzionamendu-plana aurkezteko asmorik? Noiz?

– Osasun-arreta jarraitu eta larrialdikoari buruzko funtzionamendu plana aurkezteko asmorik ez badu, noiz irekiko da berriro Erriberriko Etengabeko Arretarako Gunea?

– Osasuneko kontseilariak Nafarroako etengabeko arretarako beste guneren bat aldatzea edo kentzea aurreikusten al du? Oinarrizko zer osasun barrutitan eta zer epetan egingen litzateke hori?

– Nafarroako Etengabeko eta Larrialdiko Arretarako ereduak aldatzen ez baldin bada, zerk justifikatzen ditu arretari dagokionez egindako aldaketak eta egin litezkeen itxierak?

Iruñean, 2025eko apirilaren 7an

Foru parlamentaria: Txomin González Martínez

11-25/PES-00166. Galdera, NASTATEk NUPekin lankidetzan egin duen Datu demografikoei eta horiek hezkuntza-sisteman eta ratioetan duten eraginari buruzko azterlanari buruzkoa

PEDRO JOSÉ GONZÁLEZ FELIPE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko apirilaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pedro José González Felipe jaunak egindako galdera, NASTATEk NUPekin lankidetzan egin duen Datu demografikoei eta horiek hezkuntza-sisteman eta ratioetan duten eraginari buruzko azterlanari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko apirilaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Pedro González Felipe jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Noizko egonen da prest NUPekin lankidetzan NASTAT garatzen ari den Datu demografikoei eta horiek hezkuntza-sisteman eta ratioetan duten eraginari buruzko azterlana?

Iruñean, 2025eko apirilaren 9an

Foru parlamentaria: Pedro González Felipe

11-25/PES-00167. Galdera, Transporte Sanitario de Navarra Bidean SL sozietate publikoaren bidez osasun arloko garraio publikoa abian jartzeari buruzkoa

CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko apirilaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, Transporte Sanitario de Navarra Bidean SL sozietate publikoaren bidez osasun arloko garraio publikoa abian jartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko apirilaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Gobernuak mantentzen al du Nafarroako osasun-garraio publikoa 2025eko lehen seihilekoa bukatu aitzin jarriko dela abian, Transporte Sanitario de Navarra Bidean SL sozietate publikoaren bidez?

Iruñean, 2025eko apirilaren 10ean

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

11-25/PES-00168. Galdera, Tuterako Reina Sofia ospitalean Minaren Unitatearen jarduera berreskuratzeari buruzkoa

LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko apirilaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, Tuterako Reina Sofia ospitalean Minaren Unitatearen jarduera berreskuratzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko apirilaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Osasun Zerbitzuaren aurreikuspen arabera, Tuterako Reina Sofía Ospitaleko Minaren Unitatea noiz iritsiko da berriro artatzera aurreko urteetan artatzen zuen paziente-kopuru bera?

Iruñean, 2025eko apirilaren 10ean

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

11-25/PES-00169. Galdera, unibertsitate-graduetako eta masterretako ikasketetako kredituen kostuari buruzkoa

CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko apirilaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, unibertsitate-graduetako eta masterretako ikasketetako kredituen kostuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko apirilaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaión:

– Nola kalkulatu da Nafarroan unibertsitate-graduetako eta masterretako ikasketetako kredituen kostua, gaitzen dutenena nahiz gaitzen ez dutenena, azken 8 urteetan?

– Nola kalkulatu da horren bilakaera aldi horretan?

– Nola erabakitzen da ikasleari zer zenbateko jasanaraziko zaion?

Iruñean, 2025eko apirilaren 10ean

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero